Araugintza
I. ikastaroa



5. saioa
Aditz Sintagma

Erantzun orriak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Aditz Sintagma. Ariketa orokorra 3
ARAUAK 4
-arazi 4
Aditzoina 5
Indikatiboa 7
Baldintza 7
Ahalera..... 7
Subjuntiboa 7
Agintera 7
"Gonbidatu, itxoin, itxaron, deitu, lagundu, bihurtu" aditzak 8
Topiko bihurtu 10
Ekartzea merezi du.....10
Ohiko akatsak: ariketak 11
Normalki, legalki.../ normalean, legez..... 11
Aditzaren aspektua 11
Aditzoina..... 13
-zki- pluralgilea 13
Adizki batzuen amaierako -ke 13
Nominalizazioa..... 14

Aditz Sintagma. Ariketa orokorra

1. Ondoko hauetan, zein da Euskaltzaindiak hobetsi duena?
   a) Xabierrek nahiago izan zitik hik erositako barazkiak.
   b) Xabierrek nahiago izan ditik hik erositako barazkiak.
   c) Xabierrek nahiago izan dizkik hik erositako barazkiak.
   d) Xabierrek nahiago izan zizkik hik erositako barazkiak.

2. *Irakasleak "Kixote Mantxako" liburua osorik...*
   a) irakurtarazi digu.
   b) irakurrarazi digu.
   c) irakurri arazi digu.
   d) irakur arazi digu.

3. Zein da zuzena?
   a) Zuk zeuk ere erabil ahal duzu programa hori.
   b) Zuk zeuk ere erabil dezakezu programa hori.

4. Zein da zuzena?
   a) Merezi du sanferminetara joatea.
   b) Merezi du sanferminetara joateak.
   c) Pena merezi du sanferminetara joateak.

5.

5.1. Zein da zuzena?
   a) Mikeli bakarrik gonbidatu diote afaltzera.
   b) Mikel bakarrik gonbidatu diote afaltzera.
   c) Mikel bakarrik gonbidatu dute afaltzera.

5.2. Zein da zuzena?
   a) Bostak arte itxarongo dizuet.
   b) Bostak arte itxarongo zaituztet.

5.3. Etxeraino lagundu.... **(Zein EZ da zuzena?)**
   a) ninduzuen.
   b) nintzaizuen.
   c) zenidaten.

5.4. Hirurak aldera deituko... **(Zein EZ da zuzena?)**
   a) dizuet.
   b) zaituztet.
   c) natzaizue.

6. Zein da zuzena?
   a) Kristok ura ardoan bihurtu zuen.
   b) Kristok ura ardotan bihurtu zuen.
   c) Kristok ura ardoa bihurtu zuen.
   d) Kristok ura ardo bihurtu zuen.

ARAUAK

-arazi

Orain ariketa batzuk	egin araziko **eginaraziko** egin eraziko	dizkigu irakasleak

A.

1. Ikusi: ikusarazi
2. Estali: estalarazi
3. Ibili: ibilarazi
4. Ekarri: ekarrarazi
5. Erosi: erosarazi
6. Irakurri: irakurrarazi
7. Idatzi: idatzarazi
8. Ikasi: ikasarazi
9. Eseri: eserarazi
10. Jarri: jarrarazi
11. Utzi: utzarazi
12. Itxi: itxiarazi
13. Erori: erorarazi
14. Eraman: eramanarazi
15. Itxaron: itxaronarazi
16. Atera: aterarazi
17. Gorde: gordearazi
18. Esan: esanarazi
19. Egin: eginarazi
20. Bete: betearazi

B.

1. Zein da okerra?
   a) sorrarazi
   b) agerrarazi
   c) adierazi
   d) desagertuarazi

2. Zein da zuzena?
   a) jakinerazi
   b) adierazi
   c) ekarrerazi
   d) emanerazi

3. Zein dago ongi idatzita?
   a) emanarazi
   b) eman arazi
   c) emanerazi
   d) eman erazi

4. Zein da zuzena?
   a) irakurtarazi
   b) kenduarazi
   c) sinetsiarazi
   d) irakurrarazi

C.

Aditza	Arazlea	Sinonimoa	Sinonimoaren arazlea
Apurtu	Apurrarazi	Hautsi	Hautsarazi
Atzeman	Atzemanarazi	Harrapatu	Harraparazi
Ikaratu	Ikararazi	Beldurtu	Beldurrarazi
Iritsi	Iritsarazi	Heldu	Helarazi
Igorri	Igorrarazi	Bidali	Bidalarazi
Gogoratu	Gogorarazi	Oroitu	Oroitarazi
Onetsi	Onetsarazi	Onartu	Onarrarazi
Ohartu	Ohartarazi	Konturatu	Konturarazi
Pasatu	Pasarazi	Igaro	Igaroarazi
Erantzun	Erantzunarazi	Ihardetsi	Ihardetsarazi

Aditzoina

A.

1. Aneri geroago deitzeko erran didazue.
   Dei/deitu iezaiozu geroago Aneri.
2. Dirua hartzeko eta amatxiri nahi dudana erosteko erran didate.
   Har ezazu dirua eta eros iezaiozu amatxiri nahi duzuna.
3. Musu handi bana emateko eskatu didate.
   Eman iezaguzu musu handi bana
4. Ogi gutxiago eta gazta puska lodiagoa emateko eskatu dizuet.
   Eman iezadazue ogi gutxiago eta gazta puska lodiagoa
5. Ahalik eta lasterren erantzuteko eskatu digute.
   Etor zaitezte ahalik eta lasterren
6. Idazkaritzara jaisteko eta haurra neurekin ekartzeko agindu dit zuzendariak.
   Jaits zaitez idazkaritzara eta ekar ezazu haurra zeurekin
7. Guztiok adiskide onak izatea opa digu lanean hasi berria den zuzendaritza taldeak.
   Izan zaitezte adiskide onak

8. Ikasgelara sartu bezain agudo, esertzeko eta liburuak irekitzeko agindu digu filosofia irakasleak.
   Eser zaitezte eta ireki itzazue liburuak
9. Trena zer ordutan etorriko den galdetzea gomendatu digu izebak.
   Galde/galdetu ezazue zer ordutan etorriko den trena
10. Haurrari eskuak garbitzen laguntzeko agindu dit ikasketaburuak.
    Lagun/lagundu iezaiozu haurrari eskuak garbitzen
    Lagun/lagundu ezazu haurra eskuak garbitzen
11. Nire irizpidea lankide guztiei azaltzeko esan dit zuzendariordeak.
    Azal iezaiezu zure irizpidea lankide guztiei
12. (Guk zuek) autoz etxeraino eramateko eskatu diguzue.
    Eraman gaitzazue autoz etxeraino
13. Bere inguruan esertzeko eskatu digu maisuak.
    Eser zaitezte nire inguruan

B.

1. Barkatu, Josu, baina autoz eramaten ahal nauzu etxera?
   eraman nazakezu
2. Sentitzen dut, baina gu ez gara egoera horretan bizitzen ahal.
   ez(in) gaitezke bizi
3. Nahi izanez gero, zuek jatekoak ekartzen ahalko zenituzkete eta nik prestatzen ahalko nituzke.
   ekar zenitzakete
   presta nitzake
4. Zure esku utziz gero, edozein astakeria esaten ahal diozu.
   esan diezaiokezu

C.

1. Hirurak baino lehen itzultzeko esaten didate gurasoek.
   itzul nadila
2. Egunkaria irakurtzea gomendatu dizuete irakasleek.
   irakur dezazuen
3. Birritan eskatu digu ez errateko berari gezurrik.
   ez diezaiogula erran
4. Herriko eraikuntza zaharrenei argazkiak ateratzeko agindu digu batzordeak.
   atera diezazkiegun
5. Atzo garaiz heldu nintzen, lagunak ez haserretzeko.
   haserre/haserretu ez zitezen

Indikatiboa

1. Nik zuek ez zaituztet / zintuztedan inoiz gorrotatu.
2. Gurasoek jostailu politak erosi dizkiete / zizkieten seme-alabei.
3. Zu bakarrik etorri zatzaizkit / zintzaizkidan niri bisitan.
4. Zuek gu ez gaituzue / gintuzuen oso gogoko.
5. Azkar samurtu al zaizu / zitzaizun zuri eztula?

Baldintza

1. Zinea gustatuko balitzaizu, gehiagotan joango zinateke.
2. Haiek ni benetan ezagutu banindute, ez ninduketen aukeratuko.
3. Nagusiari soldata igoera eskatu izan banio, lan handiagoa egitea eskatuko zidan /zidatekeen berak.
4. Bizilaguna zerbait galdetzera etorriko balitzaizu zuri, antzarrak ferratzera bidaliko zenuke.
5. Otsoa artaldera sartu balitz, izugarrizko triskantza egingo zuen (zukeen)

Ahalera

1. Horrela edozein bizi daiteke / zitekeen / liteke
2. Nik ez diezaieket / niezaiekeen / niezaieke inola ere adiskideei gezurrik esan.
3. Sendagileak berehala ken diezadake / ziezadakeen / liezadake niri burutik obsesio hau.
4. Guk, behartsuak izanik, nekez eman dezakegu / genezakeen / genezake dirurik.
5. Eraman al nazakezue / nintzakezuen / nintzakezue zuek ni etxera beribilez?

Subjuntiboa

1. Gezurra erran nizun, erruki zaitezen / zintezen.
2. Korbata korapila diezadazun eskatu dizut.
3. Zakurrak zaunkarik egin ez dezan sar zaitezte isil antzean.
4. Atezainari eskupekoa eman genion egunkaria ekar zezan / ziezagun.
5. Lasai bizi zaitezten / zintezten eskatu zizueten adiskideek.

Agintera

1. (Zu) etzan zaitez eta lo egin ezazu lasai.
2. (Zuek) etor zaitezte eta ikus itzazue haurrak lotan.
3. Jan nahi baduk, egin ezak lan.
4. Kontuan har ezazue (zuek): gogoko tokian aldaparik ez.
5. Ezkondu baino lehen, (hark) begira beza / dezala zer egin behar duen.

“Gonbidatu, itxoin, itxaron, deitu, lagundu, bihurtu” aditzak

A.

1. Mirari me ha invitado a cenar.
   Mirarik afaltzera gonbidatu nau

2. Esperad hasta que venga el profesor.
   Itxaron ezazue irakaslea etorri arte

3. Esperad al profesor sentados.
   Itxaron iezaiozue irakasleari eserita.

4. Te llamaré esta tarde.
   Gaur arratsaldean deituko dizut/zaitut.

5. Llamaremos a Iñaki desde tu casa.
   Zure etxetik deituko diogu Iñakiri.
   Zure etxetik deituko dugu Iñaki.

6. Ayer esperamos hasta las cinco de la madrugada.
   Atzo goizeko bostak arte itxaron genuen.

7. Te esperamos hasta las cinco de la madrugada.
   Atzo goizeko bostak arte itxaron genizun.

8. Te ayudaría encantada.
   Gustura lagunduko nizuke / zintuzket.

9. Nos habéis ayudado a aprobar el examen.
   Azterketa gainditzen lagundu diguzue/ gaituzue

10. Nos habéis acompañado hasta casa.
    Etxeraino lagundu diguzue/ gaituzue.

11. Ese mago ha convertido las cartas en pañuelos.
    Mago horrek musuzapi bihurtu ditu kartak.

12. En dos años se convirtió en el mejor jugador de fútbol del equipo.
    Bi urtean taldeko futbol jokalaririk hoberena / onena bihurtu zen.

13. A base de trabajar mucho, Irati se ha convertido en una buena traductora.
    Lanaren poderioz (lan eta lan) itzultzaile on(a) bihurtu da Irati.

B.

1. Zein dago oker?
   x) Gonbidatuko dizut afaltzera.
   b) Pilotalekuan itxarongo dizut.
   c) Bostak aldera deituko dizut.
   d) Etxeraino lagunduko dizut.

2. Zein dago oker?
   a) Atzo bi orduz itxaron genuen geltokian.
   b) Atzo bi orduz itxaron genizuen geltokian.
   x) Kafea hartzera ere ez nion gonbidatu.
   d) Kafea hartzera ere ez nuen gonbidatu.

C.

§ ¡Que nos invite ella a nosotros!
Gonbida gaitzala berak!

§ Enseguida vengo. ¿Me esperas aquí?
Berehala nator. Itxarongo didazu hemen?

§ ¿Ayer os llamó Xabier a casa?
Atzo deitu zizuen Xabierrek etxera?

§ Todos los días me acompaña hasta casa.
Egunero laguntzen dit etxeraino.

§ En cuanto puedas, llámanos.
Ahal duzunean, dei(tu) iezaguzu / dei(tu) gaitzazu.

§ Os esperaré hasta las ocho. Si no podéis llegar a tiempo, llamádme al móvil.
Zortziak arte itxarongo dizuet. Ezin bazarete garaiz iritsi, dei(tu) iezadazue/nazazue sakelakora.

§ El mago Txan convirtió el carbón en oro.
Txan magoak ikatza urre bihurtu zuen.

§ A veces los sueños se nos hacen realidad.
Batzuetan ametsak errealitate bihurtzen zaizkigu.

§ Se convirtió en la mujer más hermosa de estos alrededores.
Inguruetako emakumerik ederrena bihurtu zen.

Topiko bihurtu

1. Ume txikia etxeko jostailua bihurtu zaigu.
   jostailu
2. Musu ematean bihurtu zen igela printzea.
   printze
3. Txan magoak ikatza urretan bihurtzen zuen.
   urre
4. Eguna gau eta gaua egun bihurtu zen.
   ongi
5. Adiskidea etsaia bihurtu zitzaion Joni.
   etsai
6. Askotan, ametsak egi bihurtzen zaizkigu.
   egia
7. Emakumerik ederrena bihurtu zen.
   ongi
8. Lehen baino zitalagoa bihurtu da.
   ongi

Ekartzea merezi du

	Zuzena?	Okerra?
Ez du bizitzea merezi	**X**	
Ez du merezi kasurik egiteak		**X**
Aipatzerik ere ez du merezi	**X**	
Hark ez du gurekin etortzea merezi	**X**	
Horrek ez du pena merezi		**X**
Ez dakit merezi duen galdetzea	**X**	
Polita bada ere, ez du merezi joateak		**X**
Merezi ote du hainbeste sufritzeak?		**X**
Ez du merezi horretan tematzea	**X**	
Zerbaitek merezi badu, horrek merezi du!	**X**	

Ohiko akatsak: ariketak

Normalki, legalki…/ normalean, legez…

1. Normalmente suelo ir andando
   Normalean oinez joaten naiz.
2. Legalmente no se puede hacer nada
   Legez ezin da ezer egin
3. Le han criticado muy duramente
   Oso gogor kritikatu dute
4. Teóricamente está bien
   Teorian ongi dago
5. Han actuado correctamente
   Zuzen jokatu dute

Aditzaren aspektua

A.

1. ¿A qué hora sales hoy?
   Zer ordutan aterako zara gaur?
2. ¿Salimos a comer algo?
   Aterako gara zerbait jatera?
3. ¿Qué? ¿Empezamos?
   Zer? Hasiko gara?
4. ¿Cuándo empieza el cursillo?
   Noiz hasiko da ikastaroa?
5. Espera, que ahora mismo se pone.
   Itxoin pixka bat, oraintxe jarriko da eta.

B.

Iturralde Suit, Juan. Idazle, historialari eta artista nafarra (Iruñea, 1840 – Bartzelona, 1909). Ingeniari-ikasketak egiten ~~hasten da~~ hasi zen, baina osasun arazoengatik utzi egin behar ~~izaten ditu~~ izan zituen. Bordelen merkataritza, eta Parisen marrazketa eta pintura ~~ikasten ditu~~ ikasi zituen. Iruñera itzulita, euskararen atzerakadak erabat ~~kezkatzen du~~ kezkatu zuen. Garai hartako egoera kaskarrari aurre egiteko, erresumako foruak, independentzia eta euskararen garrantzia aldarrikatzeko intelektualez osatutako korrontea ~~sortzen da~~ sortu zen Nafarroan. Bigarren Karlistaldia amaitutakoan, *Asociación Eúskara de Navarra* taldea ~~sortzen du~~ sortu zuen Iturralde Suitek eta *Revista Eúskara* aldizkariko zuzendaria ~~da~~ izan zen (1878-1883). Orduko aldizkari anitzetan parte hartzeaz gainera, Euskal Herriko historiaurreaz eginiko lehenengo ikerketak ~~burutzen ditu~~ burutu zituen. Pinturarako zaletasun handia ~~du~~ zuen. Idazle oparoa ~~da~~ zen eta literatur genero asko ~~lantzen ditu~~ landu zituen. Parisen igarotako denboran erromantizismoaz kutsatuta, historiaren eta artearen ikuspegi erromantikoa ~~azaltzen du~~ azaldu zuen bere obretan (*Las grandes ruinas monásticas de Navarra).*

-----ONGI DAGO-----

HEZIKETARIK EZ

Patxiku Txikik eta bere lagunek Elizondon hartzen dute Iruñerako autobusa. Oronotzen jende saldoa sartzen da eta leporaino betetzen da. Sartzen direnen artean, bada emakume heldu eta lodi bat. Berau, zuzen-zuzenean, Patxiku Txiki eserita dagoen lekuaren parean geratzen da, berari begira, eta esaten dio:

-Gure garaian, zu bezalako gazte bat altxatuko zen, ni eser nendin.

Eta Patxikuk erantzuten dio:

-Zuen garaian, beharbada, bai; baina gaur egun gutxienez bi eserleku behar dituzu.

Aditzoina

1. Pela las patatas, por favor
   Zuri / zuritu itzazu patatak, mesedez.
2. Quieres que me avergüence
   Lotsa / lotsatu nadin nahi duzu
3. ¿Puedes vaciar esta caja?
   Huts / hustu dezakezu kaxa hau?
4. ¡Afilad el cuchillo!
   Zorrotz / zorroztu ezazue labana!
5. Se puede cortar con las tijeras
   Guraizeekin motz / moztu daiteke

-zki- pluralgilea

1. Tómalos, para que se los des a tu madre
   Tori, amari eman diezazkiozun
2. Déjaselos encima de la mesa
   Utz iezazkiozu mahai gainean.
3. Te he llamado para que me ayudes
   Lagun diezadazun / gaitzazun deitu dizut/zaitut
4. Espero que nos lo pague.
   Ordain diezagun espero dut

Adizki batzuen amaierako -ke

1. Todo lo que puede hacer, está hecho.
   Egin dezakeen guztia, egina dago.
2. Todo lo que pueden hacer lo tienen hecho.
   Egin dezaketen guztia, egina daukate
3. Han dicho que te puedes ir.
   Joan zaitezkeela esan dute.
4. Han dicho que os podeis ir.
   Joan zaitezketela esan dute.

Nominalizazioa

1. Lagunek beraiekin JOATEA / JOATEKO (joan) erregutu digute.
2. Bihar zinemara JOAN (joan) nahi nuke.
3. Film horrek merezi du IKUSTEA (ikusi).
4. Matematika eragiketa batzuk EGITEN (egin) ahaztu zait, berreketak adibidez. Aspaldi utzi nion IKASTEARI (ikasi).
5. Banoa hemendik, ez baitizut bestela IKASTEN (ikasi) utziko.
6. Ikasleari etxerako ariketak EGITEA (egin) ahaztu zaio.
7. Euskara behar bezala IKASTEKO (ikasi) denbora eta gogoa beharrezkoak dira.
8. Tabakoa ERRETZEAK (erre) ez du batere mesederik egiten.
9. Guk hemendik ALDE EGITEA (alde egin) nahi dute.
10. Guk hemendik ALDE EGIN (alde egin) nahi dugu.
11. Osasunak aski du gol bat SARTZEA (sartu), txapeldun IZATEKO (izan).
12. EDATEAREN (edan) ondorioak kaltegarriak dira.
13. Telebista ITZALTZEKO (itzali) esan didate.
14. Zer edo zer JATERA (jan) noa taberna horretara.
15. EDATEARI / EDATEN (edan) eman dio.
16. ESATETIK (esan) EGITERA (egin) bazagon aldea!
17. Elizan SARTZEAN / SARTZERAKOAN (sartu), aitaren egin behar da.
18. Ez nintzen hori guztia ESATERA / ESATEN (esan) ausartu.
19. Mantsoago IBILTZEKO (ibili) agindu dio.
20. Lan hau albait azkarren AMAITZEKO (amaitu) esan didate.
21. Hobe dugu isil-isilik EGON / EGOTEA (egon).
22. Behin eta berriz ahalegindu gara lan hori behar bezala EGITEN (egin).
23. Nik ez dakit txistua JOTZEN (jo).
24. Hamabi eta erdietan BAZKALTZEN / BAZKALTZERA (bazkaldu) ohituta gaude.
25. Ez nuen nahi, baina hori EGITERA (egin) behartu naute.
26. Bazkalostean kafetxoa HARTZEKO (hartu) ohitura daukat.
27. Irabazitako guztia GALTZEKO (galdu) arrisku bizian gaude.
28. Ni ez naiz hori EGITEKO (egin) gauza.
29. Azkenekoa IZATETIK (izan) lehenengoa IZATERA (izan) igaro da.
30. Tranpa EGITEAK (egin) ez dizu ezer onik ekarriko.
31. Heldu bezain laster, ekin omen zion etxea GARBITZEARI (garbitu).
32. Gauzak behar den moduan ez EGITEAREN (egin) errua zurea da.